# Bestelako Xedapenak

**INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

**6263**

EBAZPENA, 2010eko irailaren 21ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko zerbitzu zuzendariarena, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari eskuordetzan uzteko honako kontratazioa: 2011. eta 2012. urteetarako energia elektrikoaren horniketa egitekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren menpeko zentro administratiboetan.

Sektore Elektrikoaren azaroaren 27ko 54/1997 Legearen bitartez arautu egiten dira energia elektrikoaren horniketa egiteko jarduerak, hala nola energia sortu, garraiatu, banatu eta merkaturatzea, komunitatearen barruko nazioarteko trukeak, eta, halaber, sistema elektrikoaren kudeaketa teknikoa eta ekonomikoa.

Aipatu legeak eta berori garatzeko arauek erregulatu egiten dituzte honako hauek: sistemako agenteen arteko hartu-emanak, eta horniketa elektrikoa eskuratzeko prozedurak, zehazki, merkatu liberalizatuan horniketaren ordainketen eta prezioen gainekoak.

Bestalde, Sektore Elektrikoaren Legea dela-eta elektrizitate-horniketa liberalizatu ahal izan da; eta horren ondorioz, administrazioek beste era batez eskuratu behar dute energia-iturri hori, hau da, administrazio-kontratazioari buruzko arautegian jasotako prozeduren bitartez, alegia.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaz Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazio-kontratuaren erregimena onartu zen. Bada, dekretu horren lehen xedapen gehigarriko V. Kapituluaren eta abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 18.e) artikuluaren arabera, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio honako kontratazio hau egitea: kudeaketa zentralizatutako eraikinetan, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari esleitutako zerbitzu eta materien kontratazioa, alegia –472/2009 Dekretu horren bitartez, Justizia eta Herri Administrazio sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen–.

Abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 18.a) artikuluaren bitartez, aipatu zuzendaritzari ematen zaio zenbait prozedura garatzeko proposamena egitea, zehazki, eskurapen zentralizatutako ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko dena.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA**

**6263**

RESOLUCIÓN de 21 de septiembre de 2010, del Director de Servicios del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, de delegación en la Consejera de Justicia y Administración Pública de la contratación del suministro de energía eléctrica para los años 2011 y 2012 en los centros administrativos dependientes del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

La Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, regula las actividades destinadas al suministro de energía eléctrica, consistentes en su generación, transporte, distribución, comercialización e intercambios intracomunitarios internacionales, así como la gestión económica y técnica del sistema eléctrico.

La mencionada Ley y sus normas de desarrollo regulan las relaciones entre los diversos agentes del sistema y los procedimientos para la adquisición de dicho suministro energético, y en concreto sobre los precios y remuneraciones del mismo en el mercado liberalizado.

Por otra parte, la Ley del Sector Eléctrico ha permitido la liberalización del suministro de electricidad, lo cual implica que la adquisición de dicha fuente de energía por parte de las administraciones debe realizarse a través de los procedimientos previstos en la normativa sobre contratación administrativa.

A tenor del Capítulo V de la Disposición Adicional Primera del Decreto 136/1996, de 5 de junio, por el que se aprueba el régimen de contratación administrativa de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en el artículo 18.e) del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública, corresponde a la Dirección de Recursos Generales la contratación en edificios de gestión centralizada de las materias o servicios de utilización generalizada que hayan sido atribuidos a la Dirección de Recursos Generales.

También el artículo 18.a) del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, otorga a la mencionada Dirección la propuesta de desarrollo de los procedimientos para la contratación de bienes y servicios de adquisición centralizada.

Une honetan, uste da ezen, kudeaketa zentralizatuko erakinak –Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenpekoak– energia elektrikoz hornitzea era zentralizatuz kontratatzeak hobetu egiten duela, bai zerbitzuen kudeaketa eta bai gastu publikoaren arazionalizazioa ere. Eta kontsiderazio berbera egiten da ondoko erakinez ere: Justizia eta Herri Administrazio Saileko gainontzeko erakinez eta Eusko Jaurlaritzako beste sailei eta erakunde autonomoei atxikitako erakinez.

Aipatu 136/1996 Dekretuaren 19. artikulua delaeta, posible da Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenak hedatzea kudeaketa zentralizatutako beste erakin batzuetara. Hedapen hori egiteko zenbait bitarteko erabiltzen dira: hitzarmena, berariazko administrazio-klausulen pleguetako aurreikuspen espezifikoak edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako formulak.

Aipatu esparruan, energia elektrikoz hornitzea kontratazio zentralizatuz gauzatzeko formula egokia hauxe da: eskumen eskuordetzeak egiteko aurreikusitakoa dagoena, zehazki, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.1 artikuluan zehaztutakoa; izan ere, artikulu hauxe xedatzen baita:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei loturikoak edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

472/2009 Dekretuaren 4.2.c) artikuluaren arabera, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagozkio kontratazioen arloko eskumenak.

Abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren bidez, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dira. Bada, dekretu horren 5.f artikuluaren arabera, zerbitzu zuzendariari doakio Saileko kontratazio-organo gisa jardutea, eta

EBATZI DUT:

I.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren mendeko erakinetan, energia elektrikoaren horniketa (goi- eta behe-tentsiok), 2011ko eta 20102ko urteetarakoa, kontratatzeko eskumena Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren esku uztea; ebazpen honi erantsitako eranskinean zehazten dira erakinok.

En el momento actual, se considera que la contratación de manera centralizada del suministro de energía eléctrica de los edificios de gestión centralizada de competencia de la Dirección de Recursos Generales, de los demás edificios del Departamento de Justicia y Administración Pública y de los edificios adscritos al resto de los Departamentos del Gobierno Vasco y sus OO.AA. contribuye a la mejora de la gestión de los servicios, así como a la racionalización del gasto público.

El artículo 19 del Decreto 136/1996, anteriormente mencionado, permite la extensión de las competencias de la Dirección de Recursos Generales a otros edificios distintos de los de gestión centralizada. Esta extensión se instrumentaliza por medio de convenio, previsiones específicas en los pliegos de cláusulas administrativas particulares o de las fórmulas previstas en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La fórmula apropiada para llevar a cabo de manera centralizada la contratación del suministro de energía eléctrica en el ámbito antes señalado, es la prevista para las delegaciones de competencias en el artículo 13.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que dispone lo siguiente:

«1.– Los órganos de las diferentes administraciones públicas podrán delegar el ejercicio de las competencias que tengan atribuidas en otros órganos de la misma administración, aún cuando no sean jerárquicamente dependientes, o de aquellas entidades de derecho público vinculadas o dependientes de aquéllas».

Considerando las competencias que en materia de contratación atribuye el artículo 4.2.c) del Decreto 472/2009, a la Consejera de Justicia y Administración Pública.

Considerando el artículo 5.f) del Decreto 629/2009, de 22 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en virtud del cual corresponde al Director de Servicios actuar como órgano de contratación del Departamento,

RESUELVO:

I.– Delegar en la Consejera del Departamento de Justicia y Administración Pública la competencia para la contratación para los años 2011 y 2012 del suministro de energía eléctrica (alta y baja tensión) en los edificios dependientes del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, que figuran en el anexo que acompaña a la presente Resolución.

Beherago zehaztutako gaietara –Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legean aurreikusitakoetara– hedatuko da eskuordetzea; betiere, kontratuari aplikatzekoak badira gaiok:

– Kontratua prestatzea (II. liburua).

– Kontratua esleitzea (III. liburua, I. titulua, II. kapitulua).

– Administrazioaren prerrogatibak, azkentzea, lagapena eta azpikontratazioa; izaera orokorrarekin, IV. Liburuaren II. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoak, eta partikularki horniketa-kontratuetarako, IV. Liburuaren II. tituluko IV. Kapituluan aurreikusitakoak.

– Kontratua formalizatzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

II.– Kontratazio organoari dagozkio gainontzeko eskumenak, eta, batez ere, emandako zerbitzuen exekuzioari baiezkoa emateko ahalmena eta zerbitzuak ordaintzeko agintzea; bada, eskuordetza-emaileak atxikiko ditu eskumenok.

III.– Sinatu eta hurrengo egunetik hara izango da indarrean eskuordetze hau.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 21a.

Zerbitzu zuzendaria,
JOSÉ LUIS BARRENA MARTÍNEZ.

La delegación se extenderá a las siguientes materias previstas en la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, que sean de aplicación al contrato:

– Preparación del contrato (Libro II).

– Adjudicación del contrato (Libro III, Título I, Capítulo II).

– Prerrogativas de la Administración, modificación, extinción, cesión y subcontratación previstas con carácter general en el Libro IV, Título I, Capítulo I, y con carácter particular para los contratos de suministro en el Libro IV, Título II, Capítulo IV.

– Formalización del contrato (Libro III, Título I, Capítulo I).

II.– El resto de las competencias que corresponden al órgano de contratación, y en particular la facultad de dar la conformidad a la ejecución a los servicios prestados y ordenar el abono de los mismos, permanecerán en el órgano delegante.

III.– La presente delegación entrará en vigor a partir del día siguiente de su firma.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de septiembre de 2010.

El Director de Servicios,
JOSÉ LUIS BARRENA MARTÍNEZ.

ERANSKINA/*ANEXO*

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila /
*Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca*

Behe tentsioko lokalak / *Locales baja tensión*

| Goi-tentsioko horniketa-puntua<br>*Punto de suministro en alta tensión* | Helbidea<br>*Dirección* | Herria<br>*Población* | Lurraldea<br>*Territorio* |
|---|---|---|---|
| Silo Gasteiz | c/ Puente Alto, 4-1, bajo 1 | Vitoria-Gasteiz | Araba/*Álava* |
| Urdaibai udetxea | Avda. Allende Salazar, 1, bajo 3 | Gernika-Lumo | Bizkaia |
| CEIDA Bilbao | c/ Ondarroa, 8, bajo 2 | Bilbao | Bizkaia |
| Parque ecológico de Plaiaundi (Txingudi) | Avda. Pierre Loti, 30-bis, bajo 1 | Irun | Gipuzkoa |